AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1099

AGINDUA, 2013ko otsailaren 20koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzeko dena, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategi Eskalan. Irailaren 23ko 161/2008ko Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioak izendatzeko 2008ko lan-eskaintza publikoa onartu zen.

Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren bitartez, 2008. urteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionario izateko lan eskaintza publikoa onartzen da. Eta eskaintza horren barruan dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategi Eskalako 29 plaza, hain justu ere hautaketa-prozesu batez bete behar direnak.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bitartez onartu ziren aipatu lan-eskaintza publikoaren ondorioz karrerako funtzionarioak hautatzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak; eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduaren bitartez, hautaketa-prozesurako deialdia egin zen eta deialdiko oinarri espezifikoak eta deitutako kidegoko gai-zerrenda onartu ziren.

Hautaketa-prozesua amaitu da, eta agindu honetako I. eranskinean jasotako pertsona hautatu guztiek eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute, epearen barruan; hortaz, bidezko da pertsona horiek hautatuak izan diren kidegoko karrerako funtzionario izendatzea.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 52.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, funtzionario izendatu berrien adskripzioa behin betikoa izango da, eta horniketari doakion sistemaz egindakotzat kontsideratuko dira, ondorio guztietarako. Guztiarekin ere, izangaiek adierazitako lehentasunen arabera eta hautatuen behin betiko zerrendan lortutako hurrenkeraren arabera egingo dira adskripzioak.

Esandakoaren ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduko 11. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriaz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren ondoriozko hautaketa-prozesuan hautatutako langileak –agindu honetako eranskinean zehaztuak–, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzea. Dekretu horren bitartez, 2008. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen.

Bigarrena.– Izendatutakoak, agindu honetako eranskinean zehaztutakoak, 2013ko martxoaren 1ean jabetu beharko dira esleitutako lanpostuez.

Hirugarrena.– Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako egunean postuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko eskubideak.

Laugarrena.– Esleitutako lanpostuetara funtzionario sartu berrien adskripzioa behin betikoa izango da, eta lanpostuak betetzeko sistemaz lortutakoaren ondorio guztiak dituela kontsideratuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 20a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN DIREN IZANGAIEN ZERRENDA.

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO LABORATEGI ESKALA

NAN	Izen-abizenak		
18593229	Arenzana	Merchan	Héctor
15972639	Arregi	Castiella	Susana
22742758	Domínguez	Bailon	María Soraya
16301221	Estebanez	Astobiza	Gustavo
44155947	Ferradas	Olmos	Jose Joaquin
20170324	Galaz	Mollón	Ana Isabel
30616363	Gámez	Domínguez	Teresa
15358768	Garayoa	Aranzabal	Gonzalo
16033572	González	Bustamante	Juan Carlos
22742347	Herrero	Sancho	José
15962533	Iturriaga	Sorarrain	María Pilar
34085832	Maiz	González	Enara
30680831	Marcos	Vivas	Miriam
44559034	Martínez	Bereciartua	Josune
72718330	Martínez	Velasco	Esther
30626747	Martínez de Alegría	González	María
72455766	Mateos	Fuertes	Sonia
15395707	Prieto	Coca	Nelida
16293682	Ramírez	Nájera	Raúl
16066820	Rodríguez	Argüeso	Nerea
30576749	Rojo	Fernández	Emeterio
14265441	Santa María-Amurrio	Alustiza	Lander
16294238	Santano	Rubio	María Estibaliz
14942453	Suarez	Bilbao	María Izaskun
16277926	Travel	Cotrina	Jose Mariano
15395405	Uriarte	López	Unai
18592423	Uribarren	Escudero	Patricia
16280058	Valentino	Fernández	Ricardo
22738419	Zuluaga	Uribasterra	Alvaro